

Etzi taldea - Ingumarket proiektua

Funtsezko Jarduerak

Ingumarket-en funtsezko jarduera nagusi eta garrantzitasena app-aren sorrera da. Horretarako, beraren inguruko ideiak edota helburuak pentsatu eta argi uztea ezinbestekoa da. Gainera, programazioa egingo duen enpresa batekin kontaktuan jarri eta adostasun batera iristea garrantzi handikoa da prozesu honetan. Horretaz gain, enpresaren ideia eta izenaren patentatu behar da. Baina, lan horri ekin aurretik, beharrezkoa izango dugun dirua bildu behar da. Horretarako, azaldu den bezala, kide bakoitzak diru kantitate bat jarriko du hasieran. Gainera, Eusko Jaurlaritzari eta herriko Udalari normalean eskaintzen dituzten dirulaguntzetako bat eskatuko diegu. Gainera, app-ean parte hartuko duten enpresekin harremanetan jartzea ezinbestekoa da. Are gehiago, bakoitzaren lantokia bisitatu, langileekin hitz egin, etab. Ondoren, beraiekin adostasun batera iritsi eta kontratu bat sinatu beharko dugu.

Ez hori bakarrik, guk egingo ditugun lanak aurrera eramateko lokala eskuratzea ere garrantzi handikoa da. Izan ere, lokal ezberdinak alderatu beharko ditugu, gehien komeni zaiguna aukeratzeko. Are gehiago, bestelako materialak ere eskuratu behar ditugu; besteak beste, mahaiak, aulkiak, ofizinako materiala, telefonoa, etab.

Behin *Ingumarket* sortuta, app-ak hasiera baten zehaztutako puntu guztiak betetzen dituela ziurtatu beharko dugu; eta bat betetzen ez den kasuan, aldaketak egitea pentsatuko genuke eta horiek programatzaileekin komentatu, gero aurrera eramateko. Are gehiago, proiektua martxan dagoen denbora denean, berrikusketak egingo dira, hobekuntza posibleetan pentsatuz.

Azkenik, proiektuaren zabalkuntzan jarriko genukeen arreta. Hau da, publizitatea izango litzake azkenengo urratsa. Horretarako, hainbat sare sozialetan kontu bat sortuko genuke eta iragarkiak jarriko genituzkeen; adibidez, Instagram, Twitter, FaceBook, etab. Gainera, beranduago, app-aren iragarkiak irratira, aldizkarietara eta telebistara, besteak beste, zabalduko lirateke; horrela, erabiltzaile gehiagorengana heltzeko.